

2012ko urria | 119. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria



Zamudioko Kamara Korala
25 urte kantari

YLLANA TALDEA LEIRE GONZALEZ ALTZORA EGUNA ZAMUDIOKO SAN MARTIN JAI AK





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Beñat Aiarza, Amagoia Guezuraga, Itsasne Zubiri, Joseba Apezetxea, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Rober Gómez, Giomar Gordon, Sabin Arana, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Portadako argazkia: Joseba Apezetxea

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



12 Yllana antzerki taldea



16 Altzora Eguna



30 Zamudioko San Martin jaiak

- 4 Eritxia**
- 5 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Ttak!**
- 12 Gurean izan da... Yllana antzerki taldea**
- 14 Gaztea eta... Leire Gonzalez, abokatua**
- 16 Altzora Eguna**
- 18 Zamudioko Kamara Koralaren 25. urteurrena**
- 22 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 24 Zamudioko San Martin jaiak**
- 28 Txorierri ezagutu... Abendañoena**
- 30 Krisia gainditzeko gakoak**
- 32 Berbalagunen txokoa**
- 34 Aikorrizketan... 2050. urteko euskara**
- 35 Jata-Ondo elkarte**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezko sabaia eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa

Aurtza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com



JUAN LUIS GOIKOETXEA
(Idazlea)

Goizean goiztar jaikitzen banaiz eta ikusten badut eguzkia zeruan gorantz edo zure irribarrea honantz, eguna alaitu egiten zait, energia positiboz kargatuz. Hain zaila ete da aupa esatea, mesedez eskatzea, garratza gozatea? Dio atsotitz txinatarrak -gaur egun den-dena zaigu txinatartu-: "Barre egiten ez dakien pertsonak ez duela ireki behar denda".

Urteak aurrera joan ahala, konturatzen naiz gure bizitzan zer garrantzi handia duen atsegin izateak. Ez naiz ari behi-

Zer kostatzen da atsegin izatea?

nolako "heziketa onaz" bakarrik, "buenos modales" zeritzen haietaz, ezpada norbera baino bestea, hurkoa aintzat eta kideztat hartzeaz baino.

Bizi gara halako gizartean, zeinetan badirudien gatazkak eta amorru-giroak pozgarri bezain pizgarri direla. Behintzat, hala ematen du komunikabideetako albisteei erreparatuz gero; izan ere, medioon janaria biolentziazko erasoak, irain zikinak eta delitu krudelak baitira.

Adeitasun mota bat -gaur hemen gogoan duguna- loturik dator portaera-arauekin eta formalitateekin, ohituraz gureganaino iritsi direnekin: zaharrari jarlekua lagatzea edo haurdun denari "eutsi jesarlekua" adieraztea! Halako jokabideak, zoritxarrez, maskara hutsa dira zenbaitentzat, ez dira benetakoak.

Non jabe gaitezke era horrelako giza-portaera baliotsuez? Familian, lehenik, eta eskolan ondorik, ezen adinekoe-kin, kasurako, telebista eta aginte publikoan dabilizan ospedun giza-abereekin,

eskandalua, lotsarik eza eta lapurreta ilustratua ikasten baita errazen.

Orain, krisia, XXI. mendeko Drakula eurojalea asmatu duenean kapitalak, oraintxe berton ere, zulotik batera irten dezagun, beharko ditugu jokabide atsegina, sinpatikoa eta lagunkoia. Ahaztu barik, beti ere, atsegina izatea ez dela sekula erraza. Gainera, batzuentzat pozik, baikor dabilena ez da pertsona prestua gaurko zibilizazio lehiakorrek; ahula da, makala. Pertsiaiko esaera zaharrak irakasten digu, ostera, "Berba goxak eta maitasuna erabiliz, buruko ile bakarraz eraman daitekeela loturik elefantea".

Zergatik ez landu atsegin bizitzaren ekologia? "Egun on!", "Ondo izan!", "Mila esker!", "Ebaki bi mesedez!", "Txartela faborez!", "Barka, oker ulertua izan dun!".

Idatzia du Arthur Schopenhauerrek: "Amabilitatea almodatxoa bezalakoa da, barruan ezer ez duen arren, bizitzako talkak leuntzen ditu".

Lehengoan Galbarriatuko txokora gonbidatu ninduten afari batera. Mintzagai, askoren ahotan dabilen eta gehienon bihotza estutzen duen krisia izan genuen. Ezin daiteke ukatu jende askoren egoera negargarria dela: 50 urteko lagunak kale gorrian, etxerik gabe eta bankuarekin zorra dutela... Baina are penagarriagoa da horren aurrean gehienok dugun jarrera. Zapaltzen gaituztenez kexatzen gara maiz, baina aitor dezagun oso eroso dela euren aginduak betetzea, haiek zalantzan jarri barik. Azken batean, asko lasaitzen gaitu hilero etxera heltzen zaigun dirua auzokoak gastatzen duen gauza berdinetan gastatzeak. Hala ere, bizi dugun egoera honek aukera berriak

Bizi den oro, mugimenduan dagoelako dago bizirik



ABARKOTZEKO BEÑAT
(Mugimenduzalea)

ekarri ditu. Askoren irudimena martxan jarri da, eta aukera ere eskaini digu egunerokotasunari buruz hausnartzeko eta betiko arazoei konponbide hobeak topatzeko. Hiritik baserrira, ekonomia jasagarriago baten alde, mugitu dira makinatxo bat gazte. Hainbat eta hainbat hasi dira haien elikaduraz arduratzen. Krisiak mugimendua badela adierazten digu. Batek esan zuenez, "bizi den oro, mugimenduan dagoelako dago bizirik". Mugitzen ez dena, beraz...

urdaitegia delicatessen
amalur
Urtebe, 14 - 48160 DERIO
94 612 19 55
www.amalurdio.com
info@amalurdio.com

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Urtebe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrikorria da
-Especialitateak
umeak

eleizalde
kafetegia
Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)
48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko ekitaldiak



Azaroaren 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Eguna izango da. Urriko alea itxi orduko, Txorierrin data horren inguruan egingo diren ekitaldi batzuen berri eduki dugu. Hala, kontzentrazioa egiteko asmoa dute Loiu, eta Sondikako Kultur Aretoan *Solas* zine-foruma emango da. Hori azaroaren 23an,

18:00etan, izango da. Clara Campoamor elkartek hitzaldia eskainiko du "Genero indarkeriaren kontrako borrokaren garapena, Euskadin" lelopean. Hitzaldia azaroaren 20an izango da 17:00etan, Derioko Kultur Birikan. Azaroaren 23an, Luna Llena antzerki taldearen *Gente guapa, gente importante* lana ikusteko aukera

egongo da Gurea Aretoan, 19:30ean. Eta azaroaren 25ean, 12:30etan, manifestazioa aterako da San Isidro elizaren aurretik. Manifestazioa Herriko Plazara abiatuko da, eta han kontzentrazioa egingo da eta manifestua irakurriko dute. Horrezaz gainera, zuhaitz bat landuko dute indarkeria jasotzen duten emakumeen oroimenez.

Azaroaren 22an eta 23an, "Norenak dira lanbideak?" lehiaketa egingo da Zamudioko ludotekan. Era berean, Gazte estazioan komikiak erabiliko dituzte gazteekin eraso sexistei buruz hausnartzeko. Saioa azaroaren 23an izango da, 18:30etik 20:30era. Azaroaren 24an, 11:30ean, txotxongiloen ikuskizuna eskainiko da liburutegian, eta 19:00etan helduentzako ipuin kontalaria arituko da Zamudiotorren. Azaroaren 25ean, 12:00etan, kontzentrazioa egongo da Sabino Arana plazan. Lezaman Argazki Lehiaketa antolatuko dute eta sariak azaroaren 23an, 19:30ean, banatuko dituzte Kultur Etxean. Azkenik, Maite Franko ipuin kontalariak *Bizardudinak* ikuskizuna eskainiko du Larrabetzun. Lau urtetik zazpi urtera bitarteko umeei dago zuzenduta eta azaroaren 23an, 18:00etan izango da Anguleri kultur etxean. Egun horretan ere, 19:30ean, banatuko dituzte ipuin laburren sariak.

Bai Euskarari
urrats biziak

zuzenbiziaren elkartea

Inmobiliaria ETORKI

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Móvil: 607 32 35 53 48160 DERIO

ELORRIETA INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

ama taberna

lezuola plaza, 9 - leku (zamatxo)
94 655 99 69

Aurrekoetxeak Gizon Proba Txapelketa irabazi du

Irailan, Euskadiko Gizon Proba Txapelketa izan zen Andramari Getxoko probalekuan, 85 kilotik azpiko kategorian eta kategoria absolutuan (pisu librekoa). Iñigo Aurrekoetxea "Gotxa" derioztarrak parte hartu zuen bertan, eta emaitza ezin hobea lortu zuen kategoria bietan. Hala, lehenengo postua eskuratu zuen 85 kilotik azpiko kategorian, eta bigarren postua, kategoria absolutuan. Aurrekoetxeak marka hau egin zuen: hiru plaza eta 0,5 m. Marka kategoria bietarako izan zen puntuagarria.

Kategoria absolutua Gurutzetako Oscar Perezek irabazi zuen (hiru plaza, 1/2 eta 4,92 m). Beste alde batetik, Txorie-riko Herri Kirol Taldeko beste kide bi ere aritu ziren kategoria absolutuan: Gorka eta Aitor de la Concepción anaia. Lehenengo hirugarren postuan gelditu zen (plaza bi, 3/4 eta 3,16 m), eta bigarrena, zazpigarren postuan (plaza bi eta 0,26 m). Kategoria bietako parte-hartzaileek 800 kiloko harria eraman behar izan zuten herrestan, eta harekin ahalik eta metro gehien egin. Horretarako, ordu erdia eduki zuten.

Aurrekoetxeak urteetan hartu du parte harri-zulatzailen txapelketan eta onenen artean izan da beti. Hala ere, desadostasunak izan zituen txapelketaren antolatzaileekin eta lehiatzeari uztea erabaki zuen. "Orduan, Herri Kirolen barruan dauden modalitatek gogorrenetarik



batekin saiatzera animatu nintzen: gizon probak, banakako kategorian. Iaz "Urpe" rekin ibili nintzen teknika ikasten".

Aurtengo txapelketari dagokionez, lehenengo artean egotea izan du helburutzat. Hura lortzeko, oso entrenamendu gogorrak egin ditu urte hasieratik hona. Era berean, 14 kilo galdu ditu 85 kilotik azpiko kategorian sartu ahal izateko. "Kategoria horretan Karmelo Ibarluzea "Satzibar" izan da bigarrena (plaza bi eta

5,40 m). Ibarluzea oso teknikoa da eta txapelketa irabazi du aurreko urteetan. Baina nik banekien aukerak nituela, eta, entrenatu ahala, gero eta hobeto ikusten nuen nire burua. Irabazteaz gainera, egindako markari esker lortu dut kategoria absolutuan bigarrena izatea". Esfortzuak saria ekarri du, eta Aurrekoetxea buru-belarri dabil Bizkaiko Txapelketa prestatzen. Azaroaren amaieran izango da Nabarnizen.

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Gutxi-ikusiak, erokortuen
Auzokoen kumutazioak
Mantenimendu garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enbriak garbitzeko
Dantzetarako
Zabaler bilaketa

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

lurrindegia MAMEN mertzeria

Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

harategia - urdaitegia
MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZIA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

TURREGOTTI
JATETXEA

Laurietako etorbidea, 27
48180 Lodu-Bizkaia
T-Fax: 94 453 24 40
restauranteturregotti.com

elekma

URBATZEN BAT DUTEN ETXETREKOA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISIEN ETA ETXETREKOA ELEKTRIKO TORKU

lehenengo markak • Prestakari onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Torionari etorbidea, 25-3. N. 48180 Lodu
T: 944 590 232
www.elekma.es

MARMOLGINTZA
GOYO

SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIK

Ugaldeguren 1 ind, 10-8 mabea
48180 Derio, Bizkaia
T: 94 454 82 93 - Fax: 94 454 50 63

Auto klasikoen zaleek hitzordua eduki zuten Loiun

a: Loiuko Udala

Urrian auto klasikoen erakusketa izan zen Loiun, Udalak antolatua. Ekitaldian 100 auto batu ziren; aurreko urteko saioan baino 20 auto gehiago, hain zuzen ere. Besteak beste, 20ko hamarkadako ibilgailuak, 30eko hamarkadakoak, 40ko hamarkadakoak eta 60 hamarkadakoak izan ziren. Parte-hartzaileek Bizkaiko hainbat txokotatik, Gasteizetik, Burgosetik eta Kantabriatik ailegatu ziren Loiura. Herri-
tar eta bisitari asko ere hurbildu ziren erakusketara. Gainera, botoa emateko aukera eduki zuten. Guztira bost sari eman ziren. Autorik originalenerako saria Corvette batek eraman zuen; autorik sinpati-



koenerako saria, Isetta batek; urrunagotik etorritako autorako saria, Minimorris batek; auto deportiborako saria, Ferrari Testarrosa batek; eta auto zaharenerako saria, 1929. urteko Chevrolet batek. Antolatzaileek esan duten bezala, oso pozik daude, bai parte-hartzaileen erantzunarekin, bai herritarren eta bisitarien erantzunarekin. Hain pozik, ezen ekimena hirugarren aldiz antolatzea erabaki baitute.

Bestetik, aipatu beharra dago urrian ere Gastronomía eta Eskulangintza Azoka izan zela Loiun. Azoka 20. aldiz egin dute aurten, eta, goiz osoan zehar euria barra-barra ari bazuen ere, herritarrek eta bisitariak aukera eduki zuten baserriko produktuez eta antolatu ziren ekitaldiez gozatzeko. Besteak beste, lumagorri oilaskoa dastatu zen azokan.



Argazki Lehiaketa

DAT Derioko argazki taldeak Argazki Lehiaketa antolatu du azarorako. Lehiaketa argazkigintza atsegin duten guztiei dago zabalik eta gaia libre da. Lehiakide bakoitzak gehienez hiru lan aurkez ditzake. Lanak azaroaren 28ra arte aurkez daitezke Kultur Birkan. Guztira hiru sari emango dira: 400 euro eta diploma bilduma onenari; 200 euro eta diploma, argazki onenari; eta 100 euro eta diploma derioztar batek egindako argazkirik onenari. Sariak abenduaren 29an, 12:30ean, banatuko dira Kultur Birkan, eta lan onenak bertan ipiniko dira ikusgai. Lehiaketa puntuagarria da Argizaiola lehiaketarako. Interesdunek www.datfotoderio.com webgunean kontsulta ditzakete lehiaketaren oinarriak eta xehetasunak.

Etxebizitzaren zozketa, Derion

Udalaren eta Sukia enpresaren eskutik, 84 etxebizitza zozketatuko dira Aldekone Barria bizitegi-
auroan. Horietako 64 babes ofizialeko etxebizitzak dira, eta garaiea eta trastelekua dituzte. Gai-
nontzeko 20ak etxebizitza tasatuak dira, horreek ere garaje eta trastelekuarekin. Izena emateko epea azaroaren 30era arte egongo da zabalik Kultur Birkan. Informazio gehiago: www.aldekone.com.

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiak ikastaroak
Aisialdirako landak - Apolo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefona: **IBON - 659 90 75 88**
Aretxalde auzoa, 83 • 48196 LEZAMA

KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA

Goitolza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

LEJARRENE JATETXEA
Garailetxa auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

KAFETEGIA
IMAZ
JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Carnicería
Charcutería
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TEL: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko etortzeagatik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK
lasai

Luis M^a Asensio
Osteopata

Larraberri, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

Enologia Eguna, Sondikan

Arrakastatsua izan da aurtengo Enologia Eguna, Sondikan. Ekimena laugarren aldiz antolatu dute hilaren hasieran, eta bertan jendetza handia batu zen. Azokan 13 erakustoki atondu ziren eta bertan jatorrizko deitura duten produktuak jarri ziren salgai: Errioxako ardoa, Bizkaiko txakolina, Ribera eta Albariñoa, beste batzuen artean. Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, 400 ardo-kopa saldu ziren. Horietako bana hartu zuten herritarrek eta bisitariak aukera eduki zuten azokan zeuden ardo guztiak dastatzeko. Gainera, ardo-kutxen zozketan ere hartu zuten parte. Beste alde batetik, Idiazabal gazta saltzen zuten postu bi jarri ziren eta pintxoan dastatzea eskaini zen. Umeentzako tailerra ere antolatu zen.



a: Sondikako Udala



Hegaluzea eta txakolina, Lezamako protagonistak

a: Jon Rozadilla

Urrian Nekazaritza Azoka egin da laugarren aldiz Lezaman. Egunderraren irten zen eta eguraldi onak animatu zituen herritarrek zein bisitariak ekimenean parte hartzerantz. Antolatzaileek 30 saltoki inguru atondu zituzten eta han nekazaritza-produkturik onenak jarri ziren ikusgai eta salgai. Txakolina Lezama eta Txorierriko bereizgarrietariko bat da eta herriko txakolingileek ere haien lekua eduki zuten azokan. Beste alde batetik, aipatu beharra dago aurten euskal labela zuen hegaluzea dastatzeko aukera egon dela.

Pintxo gehi edalontzi bat txakolin euro bitan ipini zuten salgai. Antolatzaileek esan duten bezala, ekimena oso arrakastatsua izan zen eta 500 anoa inguru saldu zituzten. Era berean, txakolingileak pozik irten ziren egindako salmentekin. Azokan postua jarri zuten ekoizle gehienak Lezamakoak eta Txorierrikoak izan baziren ere, Bizkaiko beste herri batzuetatik eta Iparraldetik etorritako lagunak ere ibili ziren bertan. Besteak beste, hegaztien erakusketa eta umeei zuzendutako tailerrak antolatu zituzten, eta herriko elkarte batzuek postua ipini zuten haien lana ezagutzera emateko.



BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Txorierrin

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Leire Begoña

ILEAPAINDEGIA

Unisex ileapaindegia
Estetika
Ordutegi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

Arantza Amondarain Lasa

Ginekologoa

Txaneroi etorbidea, 3-4
413. Irujoa
48160 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 58
a.amondarain@euskalnet.net

TXAKURREN

ILE-APAINDEGIA

Mungialde eta Gernikako
erbatzen trukean
48160 Derio
T: 94 404 21 80

Txorierritar bi, Bertsolarien Txapelketan

Hasiera eman diote Bizkaiko Bertsolarien Txapelketari eta Malen Amenabar larrabetzuarra urriaren 27an Mungian egin zen kanporaketan aritu zen. Hura aldizkarian inprentan zegoela egin zen; beraz, alea itxi orduko ez dugu jakin finalaurrekoetara ailegatu den ala ez. Etxahun Lekue ere txapelketan hartuko du parte. Lekue finalista izan zen 2010eko txapelketan, eta zuzenean pasako da finalaurrekoetara. Saioa azaroaren 25ean egingo da, 17:30ean, Durangoko Landako gunean.

“BaDaGaRa” da aurtengo txapelketaren leloa. Hala, antolatzaileek bertsolaritzaren zutabeetako bi azpimarratu dituzte: transmisioa eta talde lana. Era berean, bertsolariek hitzekin jolasten dutela gogoratu dute eta horren haritik enfasi berezia jarri dute leloaren kontsonanteetan: BDGR. Batzuek hitz bat sor dezakete kontsonante horiek erabiliz; beste batzuek, beste bat. “Scrabble handi bat garela esan genezake. Jolas dezagun, bada”. Txapelketaren sintonia Audience taldeak sortu du eta bideoklipa ere egin du berak.

Guztira, 38 bertsolarik hartuko dute parte txapelketan. Aurreko urteetako egitura bera izango du eta bost kanporaketa, hiru finalaurreko eta finala egingo dira. Finala abenduaren 15ean egingo da, 17:30ean, Bilboko Miribilla kirol jauregian.

Txapelketa www.bizkaikotxapelketa.biz webgunearen eta sare sozialen bidez jarraitu ahal izango da. Gainera, Pla-

zatik atal berria atondu da webgunean, eta bertan aukera izango da, bertsotzaileen berriak, iritziak, argazkiak, bertsoak eta bideoak plazaratzeko. Sarrerak www.bertsosarrerak.eu webgunearen bidez edo saioetako leihatiletan erosi ahal izanango dira. Finaleko sarrerak hasiera-hasieratik jarriko dira salgai.

Facebook:

www.facebook.com/BizkaikoTxapelketa

Twitter:

@BizkaikoTx

Vimeo:

vimeo.com/koplabariktb

Berriketan.info:

Berriketan.info/BizkaikoTxapelketa



GOIALDE
Pelukeria
Estetika
94 455 81 44
Anguluri 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia

SARRIKOLA OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Miguel Angel Lekue, garraio-laria.
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20

FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - beheko 48195 Larrabetzu 94 455 89 19

Oguiza Hartz Klinika
Kirurgia eta implanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzoiaren tratamenduak
Odontologiako kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak
Anguluri enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890



a: Txelu Angoitia, Gerediaga Elkarteak

Basterretxeak egin du Durangoko Azokaren kartela

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka 47. aldiz egingo da aurten, eta Gerediaga elkarteak Nestor Basterretxe artista polifazetikoari eskatu dio haren kartela diseinatzeko. Kartel modernoa da, ezohikoa. Aspaldi honetan, teknika berri bat lantzen ari da bermeotarra, eta, azaldu duenez, teknika hori erabili du kartela egiteko. "Telebista matxuratzzen denean, kolore zoragarriak azaltzen dira pantailan. Argazkia ateratzen diet koloreei, eta gero hainbat muntaia egiten ditut". Azken urteotan, lehiaketak antolatu dira azoka iragartzeko kartela aukeratzeko, baina oraingo honetan aspaldiko ohitura bat berreskuratu du Gerediaga elkarteak. Izan ere, lehen Durangaldeako artistei eskatzen zieten kartela diseinatzeko, baina aurten Euskal Herri osoko sortzaileak hartu dituzte kontuan.

Azoka abenduaren 6tik 9a bitartean egingo da eta, aurreko edizioen aldean, egun bat gutxiago iraungo du. "Krisiak gudan ere badu eragina. Bost eguneko azoka antolatuz gero, kalitatea galduko genuke. Beraz, egun horietan bilduko ditugu ekimenak", esan du Aiert Goenaga Azokaren zuzendariak.

Eusko Legebiltzarra aukeratu genuen

Urriaren 21ean egin ziren hauteskundeetan EAJ-PNV alderdiak 27 legebiltzarkide lortu zituen; EH Bilduk, 21; PSE-EEK, 16; PPk, 10; eta UPyDk, 1. EAJ Txorierrin ere izan zen botu gehien lortu zituen alderdia: % 50,92 hain zuzen ere. EH Bilduk bozen % 27,6 jaso zuen; PSE-EEK, % 9,58; PPk % 6,09; eta UPyDk, % 0,76. Hurrengo koadroetan herrika batu ditugu emaitzak. Eusko Legebiltzarrean ordezkariak eskuratu ez duten alderdiak Besteak izeneko multzoan ipini ditugu.

DERIO	2012	2009
EAJ	% 44,28	% 44,94
PSE-EE	% 22,38	% 34,06
EH Bildu	% 17,62	-
PP	% 6,81	% 8,82
UPyD	% 1,12	% 0,94
Besteak	% 7,79	% 10,91
Abstentzioa	% 29,18	% 29,31

LOIU	2012	2009
EAJ	% 61,52	% 67,27
EH Bildu	% 16,16	-
PP	% 10,28	% 11,48
PSE-EE	% 6,52	% 11,64
UPyD	% 0,92	% 1,47
Besteak	% 4,6	% 7,8
Abstentzioa	% 25,38	% 22,14

LARRABETZU	2012	2009
EH Bildu	% 50,57	-
EAJ	% 41,5	% 70,52
PP	% 2,7	% 2,82
PSE-EE	% 1,96	% 6,36
UPyD	% 0,41	% 0,73
Besteak	% 4,27	% 14,92
Abstentzioa	% 19,77	% 22,54

SONDIKA	2012	2009
EAJ	% 53,69	% 59,26
EH Bildu	% 20,85	-
PSE-EE	% 11,15	% 20,70
PP	% 8,04	% 9,70
UPyD	% 1,13	% 0,79
Besteak	% 5,14	% 9,08
Abstentzioa	% 24,92	% 24,99

LEZAMA	2012	2009
EAJ	% 55,12	% 66,40
EH Bildu	% 30,55	-
PSE-EE	% 5,71	% 14,14
PP	% 3,85	% 5,41
UPyD	% 0,5	% 0,97
Besteak	% 4,27	% 11,98
Abstentzioa	% 25,18	% 27,35

ZAMUDIO	2012	2009
EAJ	% 49,42	% 61,66
EH Bildu	% 30,23	-
PSE-EE	% 9,8	% 20,23
PP	% 4,85	% 6,78
UPyD	% 0,49	% 0,61
Besteak	% 5,21	% 9,8
Abstentzioa	% 27,02	% 27,71





Ttak!

Aurten, gripearen txertoa jartzeko ilaran nengoela, aurrean neukan jubilatua hasi zitzaidan hizketan, horretarako inolako arrazoirik egon gabe:

-Gaztegia zara, agian. Zuk ez duzu soldadutzarik egin, ezta?

-Ez, libre geratu nintzen.

-Ba, ni bertan izan nintzen, halabeharrez. Eta harrigarria iruditu arren, garai hartan txertoa jarri behar zigutenean, orratz bera erabil-tzen zuten medikuek soldadu guztientzat, alkoholarekin esterilizatu ostean!

Barre-algaren ostean, erizainak gelan sartzeko keinua egin zion eta bertan utzi nuen gizon hura, bere oroitzapenetan murgilduta.

Testua eta argazkia:

Jon Goikouria Larrabeiti

www.flickr.com/photos/jongoikoh

ERREKA
JAT ETXEA ONDO

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

BAR TXIKI

EGUNEKO MENUAK **ESPEZIALITATEA. TORTILLAK**

Lehendakari Leizaola Plaza, 6
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 04 68

URAS
Estetika eta masajea

Aita Patxi Ugalde, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

Kartagandik gertu

ARROLKULARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKALDATZEAK
SALERUNTAK
SEGUROR BILBAGOREN AGENTZIA

“Aktoreok berriro ere pasatu beharko

t: Itxaso Marina / a: Yllana

Iraungitze-datarik ez duen lana da Txorierrira ekarri duzuen.

Lana orain dela 20 urte antzeztu genuen lehendabiziko aldiz, eta, konpainiaren urteurrena ospatzeko, berriro taularatzea erabaki dugu. Toreatzaile munduaren gaineko parodia da, nazio-festaren eta Espainiako hainbat topikoren gaineko parodia. Jatorrizko lanari ukitu batzuk eman dizkiogu, ideia batzuk zahar gelditu direlako. Beraz, esan dezakegu lan berria dela, baina konpainiaren hasierako lana berriro hartzen duena.

Eztabaida sutsuak pizten dituen gaia aztertzen du.

Oso emaitza onak eduki genituen duela 20 urte, eta lanak aukera asko ekarri zizkigun, batez ere atzerrian. Orain ere oso emaitza onak izaten ari gara. Pozik gaude, bai zezenketen aurka daudenen erantzunak, bai alde daudenen erantzunak oso onak direlako.

Umorezko antzezlanak dira zuenak, eta bertan ez duzue hitzik erabiltzen...

Ez dakit gure lanetan inoiz testurik sartuko dugun, baina hitzik ez erabiltzea konpainiak hartu zuen erabakia da. Gustura gaude hartutako erabakiarekin, eta, nire ustez, horrek lagundu digu hain publiko zabalarengana ailegatzen, hau da, nazioarteko publikoarengana ailegatzen. Izan ere, mundua oso handia da eta gurea lokalismo-tik haratago doan antzerkia da.

FIDEL FERNANDEZ | aktorea

Yllana konpainiak *¡Muu! 2* antzezlanaren aurkeztu zuen urrian, Sondikan. Fidel Fernandez eszenatokira igo ziren toreatzaileetarikoa bat da. Umorezko estoke-kolpeen artean, tartetxoa atera zuen gurekin hitz egiteko.

“Hitzik ez erabiltzeak lagundu digu nazioarteko publikoarengana ailegatzen”

Tricycle antzerki taldea erreferentzia da Estatuan. Haien ospea lagungarria edo kaltegarria da gainontzeko konpainiontzat?

Lagungarria da. Urteak daramatzate mundu honetan eta maisuak dira. Ate asko ireki dituzte. Dena dela, nik uste dut guk 666 lanetik aurrera oso bide ezberdina hartu genuela. Guk umore beltza egiten dugu eta haiena zuriagoa da. Gure zuzendariak dion moduan, haiek pop-a egiten dute; guk, rock and roll-a.

Yllana antzerki taldea baino zerbait gehiago da.

Ez dakit zein kalifikatzaile erabili: ekoizle-etxea, antzerki faktoria... Besteak beste, nazioarteko artistak eramaten ditugu, umorezko festibala antolatu dugu, Las Rozaseko Antzerki Eskola sortu dugu, Alfil antzokia kudeatzen dugu...

Zergatik dibertsifikazio hori?

Glub, glub lanarekin biran geundela, konpainiako batzuk Madrilan gelditu behar ziren, bai familiagatik, bai Alfil antzokiaren kudeaketagatik. Hori dela-eta, artista berriak ezagutu zituzten, proiektu berriak agertu ziren... Ikasten jarraitzeko gogoia genuen, antzerki-gintza oso esparru zabala delako.



dugu txapela"

Taberna ere ireki duzue.

Bai, kontzertuak eta antzerkigintzaren inguruko ekimenak antolatzen ditugu bertan.

Gune berria kulturarako...

Beharrezkoa da, gauzak oso txarto daudelako.

Zelan bizi duzue antzerkiaren egoera, batez ere BEZaren igoeraren ostean?

Gehien kezkatzen gaituena Alfil antzokia da, ondorio latzenak han nabaritu daitezkeelako. Guk, oraingoz, emanaldiekin jarraitzen dugu, lan asko dugu atzerrian eta lanen baten egile-eskubideak ere saldu ditugu kanpoan. Horrek guztiak nolabaiteko aukera ematen digu... Baina arazoa antzokia da, sarrera baten truke 15-20 euro ordaindu behar direlako. Azkenean kaleko antzerkia berreratuko dugula uste dut. Berrito ere txapela pasatu behar dugu.

Ikuspuntu iluna ematen du.

Benoa, gu hala hasi ginen Erretiro parkean, tabernetan... Alde batetik, positiboa izango da jendea mugitu beharko delako, eta publikoak zuzenean ordainduko diguten guneetara egokitutako lan txikiagoak egin beharko direlako. Horrek sormen handiagoa ekarriko du. Irudimena oso erreminta ona da bizirik irauteko, eta estu jartzen bazaituzte, borrokan jarraitu beharko da.



21 urte tutik ere esan barik

Yllana konpainiak 21 antzezlan ekoiztu ditu 21 urtean. Haien artean, *Rock and clown*, *Buuu!* eta *Action man* aipa daitezke. "Zaila da bata edo bestea aukeratzea, baina nik 666 lana azpimarratuko nuke. Heriotzaren bildotsari buruz hitz egiten dugu bertan eta hitzik erabiltzen ez dugula kontuan hartuta, asmatu egin genuela uste dut. Berez gailentzen den lana da. *Brokers* lana ere nabarmentzekoa da... Eta noski, maitasuna diezu hainbat produkzio eta koprodukziori, beste profesional batzuekin lan egitea eta ekoizpen horiek mundu osoan zehar eramatea ikasketa itzela delako". Konpainiak 2.000 emanaldi baino gehiago eskaini ditu 33 herrialdetan eta nazioarteko jaialdietan ere hartu du parte, Montrealeko Juste Pour Rire jaialdia eta Edinburgo Fringe jaialdia, banaka batzuk aipatzearren. Sari ugari ere jaso dituzte.

Beste alde batetik, Leo Bassi bezalako nazioarteko artistekin egiten dute lan, eta telebistarako iragarkiak ere sortu dituzte. 1996. urtetik hona Alfil antzokia kudeatzen dute. Hura komediari zuzendutako gunea da, eta erreferente bihurtu da Madrilén. Era berean, aholkularitza artistikoa eskaintzen dute, eta jaialdiak ekoiztu eta zuzentzen dituzte.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 00
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cals. 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagotti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

GALAISA Elargabeko ordutegia

Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3, SONDIKA

IRATXO gozotegia

tarta pertsonalizatuak
trufak
lelak
pastinak
pastak
Mikel Zarate, 2 - 3. Iorja - Sondika, 48150 - 94 465 80 16

“Ezinbestekoa da ideologiak alde batera itxi eta indarrak batzea”

a: Itsasne Zubiri

Zein gurago dozu: abogadu-langelako beharra ala sindikatukoa?

Ez neuke jakingo zer esan, batak zein besteak alde onak eta txarrak ditualako. Abogadu-langelako beharra dinamikoa goa zan, hainbat arlo lantzen genduzan eta denpora handiagoa genduan kasuak eta prestetako. Denpora librea be handiagoa zan... Sindikatuan, barriz, batez be behar arloko gaiez arduratzen naz, nahiz eta behar administratiboren bat be egiten dodan. Behar gehiago dogu, eta denpora gitxiago... Baina pozik nago, esperientzia eta espezializazioa hartzen nabilelako.

Abogadu-langelan zenbilzanean, ados ez zengozan kausaren alde egin behar izanak eraginik euki eban zugar?

Batzuetan, gehienbat zuzenbide penalean bazabilz, gainontzeko herritarrek ulertzen ez dituen kausen alde egin behar dozu. Azken baten, gure beharra da eta ahalik eta ondoen egiten ahalegindu behar dogu. Eta bai, badagoz gaiak burutik kendu ezin dozuzanak.


Orain, behar arloan zabilzan, zer ekarri deusku azken behar-erreformak?

Guztiok dakigunez, beharginen eskubideen kontra egiten dauen erreformea da. Alde batetik, beharginak kalera botatzea merkeagoa da. Bidebakoko irazpena gaitik 33 egun ordaintzen dabez orain (lehen, 45 egun), eta gehienez 24 hileko ordainketa ezarri dira. Beste alde batetik, behargina berriro hartzen daben kasuetan izan ezik, izapide-aldiko soldatak kendu dira, eta, ondorioz, diru gitxiago jasoten da bidebakoko irazpena dagoan kasuetan. Era berean, enpresak galerak baditu, horreek aurreikusten baditu, edo diru-sarrerak, gastuak eta salmentak hiru urtean jaisten badira, irazpen objektiboak egin daitezke. Eta gainera, helegitea aurkeztu dakikeen gai-kopurua murriztu da. Enpresei aukera handiak emon jakez, beharginak kalera bota ahal izateko.

Guztiongan eragina dauen neurria da; batez be gazte eta 40 urtetik 50 ur-

LEIRE GONZALEZ | abogadua

Letrakaz zenbakiakaz baino hobeto konpontzen dala di-no, eta horregaitik abogadua izatea erabagi ebala. “Eta era gehiago ekarri leikidazala uste nebalako”. Sondikoztar hau orain dala hiru urte hasi zan abogadu-langela baten beharrean, baina ha itxi eta sindikatu baten dabil orain, beharginen eskubideen alde egiten.



tera bitarteko beharginen gainean egi- ten da berba...

Bai, oso larria da hain prestakuntza ona daben gazteek beste herri batzuetara alde egin behar izatea. Halanda guztiz be, nire ustez, larriagoa da besteen kasua: egun batetik bestera kalean dagoz, seme-alabakaz, hipotekagaz, hilero ordaindu behar diran fakturakaz... Hareen adina eta egoera zelan dagoan kontuan hartuta, gatz dabe beharra topatzea. Horren haritik, euren lanpostua mantentzeko, lehen onartuko ez eukiezan gauzak onartzeko prest azaldu dira batzuk.

Eta enpresari asko horretaz aprobe- txatzen dira.

Bai, gagozan egoeraz aprobe txatzen dira, beharginen egoera pertsonalez... Eta euren alde behar-erreforma dabe. Orain, askoz errazago dabe beharginak kalera-
tzea, eskubideak urratzea.

Beharginok dogun tresnea grebea da. Bideragarria izango litzateke muga- bako grebea?

Orain dala gitxi grebea euki dogu Eus-
kal Herrian, eta egoerea hobetzen ez dan
bitartean, greba gehiago egingo dira. Mu-
gabako grebarik? Ez dakit. Baina egoera
hartzen dabilen itxurea kontuan hartuta,
izan leiteke. Azken baten, holango neu-
rriek podere publikoak behartzen dabez
erreakzionetera eta beste bide batzuk har-
tza.

Indarra alkartasunean dago. Sindi- katuen arteko alkartasunik ez dagoala emoten dau gehienetan.

Nik ez dakit dagoan ala ez. Baina egoe-
ra honetatik aterateko, ezinbestekoa da
ideologiak alde batera itxi eta indarrak
batzea. Beharginen eskubideen alde guz-
tiok egin behar dogu: podere publikoak,
beharginak, sindikatuak eta erakundeak.
Halan egiten badogu, ziur nago egoera
askoz hobea izango dala.

Zerbait onik atera daiteke panora- ma baltz honetatik?

Ez da erraza. Baina atsotitz honegaz
gelditu gaitezke: akatsetatik ikasten da.

*"Lanpostua
mantentzeko, lehen
onartuko ez litzatekezan
gauzak onartzen dira"*



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTEDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago





SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

ACAPELEANDO
B vocal
%100 soinu-tresnarik gabe
Azaroak 24, 20:00
Prezioa: 10 €



AHATETXO ITSUSIA
Glu Glu Producciones
Umeen antzerki musikala
Azaroak 11, 17:00
Prezioa: 6 €



HOTEL TRANSYLVANIA
82' AG (3D)
Azaroak 3, 18:00
Azaroak 4, 17:00

LO IMPOSIBLE
113' EG-12 (2D)
Azaroak 3, 20:30
Azaroak 4, 19:30

ARGO
120' (2D)
Azaroak 10, 18:00-20:30
Azaroak 11, 19:30

CAMPANILLA EL SECRETO DE LAS HADAS
88' AG (2D)
Azaroak 17, 18:00
Azaroak 18, 17:00

RUBY SPARKS
97' EG-16 (2D)
Azaroak 17, 20:30
Azaroak 18, 19:30

SOLAS
Azaroak 23, 18:30
Zineforuma: Emakumeen
aurkako Nazloarteko Eguna
Gonbidapenak, liburutegian

OCEANWORLD 3D
81' AG (3D)
Azaroak 25, 17:00-19:30

ZINEA








2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldaketak jasan ditzako



Altzora Eguna, ezin arrakastatsuagoa



a: Rober Gómez, Giomar Gordon



Eguraldia lagun, egitarau oparoa antolatu eban Altzora Sondikako euskera alkarteak Altzora Egunaren lehenengo ediziorako. Goizean umeei zuzendutako zirku eta hegazti harraparien tailerrak egin ziran eta 70 gaztetxo inguruk hartu eben parte. Ondoren, Zaparrada taldearen tanbor-hotsak Larrabarrena parkean ipinitako karpas erotan zituan euskaltzaleak eta lagunak. Karpapean, eguzkitik babestuta, 300 persona batu ziran bazkalatzeko. Herri bazkarian sondikoztarrak eta Txorierriko euskera alkarteen kideak ibili ziran. Bazkalondoa Taberna ibiltariak girotu eban, eta ostean Anje Duhaldek hartu eban gitarrea. Burura aspaldiko hainbat kantu etorri jakuzan. Eguna ilunduz joan zan, baina Aiko taldeak euskal dantzateka

SOINUAN ADITUAK

Txoriemil et., 15
48150 Sondika-Bizkaia
944 533 375

www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com

- hi-fi
- nahigegizoa
- telefonis
- segurtasuna
- lariaketa
- personalizazioa

NARTEGIA • URDAITEGIA

ARTESAU-ELABORAZIOA

Okela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txistorra, solomoak...

Plater aurrekoiznatu

Golri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

Consulting

Sondika s.l.

Sabin Askolizaga

Aseguru agentzia
Allianz

609 475 746

Mixtore, 6 beheko
48150 Sondika-Bizkaia

T.: 94 453 18 07
Fax: 94 453 60 27

bihurtu eban topalekua. Gazte eta nagusi-txuagoek aurre egin eutsien nekeari eta Altzora Egunak luze jo eban.

Antolatzaileek adierazo deuskuen bezala, oso pozik dagoz ez ebelako espero ekimenean hainbeste jente batuko zanik. Alkartea orain dala urtebete osatu zan eta handik hona hainbat ekitaldi antolatu ditue, Sondikan euskerea eta euskal kultura bultzatzeko. Altzora Eguna be helburu horregaz egin dabe. "Zorionak eta eskerrona sondikoztarroi, gure deiari hain eskuzabal erantzuteagaitik. Animo, hurrengorako egun bat gitxiago falta da-eta!".




**LIBRERÍA
SONDIKA
LIBURUDENDA**
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

 **Goiri'78 s.l.**
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

 **Txorierri**
Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella
Máquina 5, bajo - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larmailak: 670 985 885 - www.txorierri.com

“Alkarregaz gozau egiten dogu musikaz”

IRATXE GEZURAGA |

Zamudioko Kamara Koralaen zuzendaria

Zamudioko Kamara Koralak 25 urte bete ditu. Hogeta bost urte, musikea han eta hemen zabaltzen; kultura musikala herritarrengana hurbiltzen. Urteurrenari pozik eta egitarau oparoa antolatuta dabela heldu deusie. Iratxe Gezuragaz izan gara solasean, Kamara Koralaen ibilbidearen ganean.

t: I. Marina / a: J. Apezetxea, A. Guezuraga, ZKK

Zer dator burura hainbat urteren ostean?

Denporea oso arin pasaten dala, jente asko eta hainbat kultura ezagutzeko errea euki dogula, eta maila pertsonalean oso aberasgarria izan dala.

Koralak hainbeste urte iraungo ebanik uste zenduen?

Hasi ginanean, ez genduan denpora eta iraupen arloko helbururik ipini. Abestuz ondo pasau gura genduan, besterik ez. Baina pentsaten hasita, oso adierazgarria da koralak iraun dauen denporea. Bertotik pasau diranek zerbait baikorra itxi dabe eta jente barriak be haren gogo handia, abesteko grina eta pozagaz barritzau dau koruaren barruko giroa.

Eta zein da, zure ustez, euki dauen bilakaerea?

Korala umeek osatzen eben hasieran eta hareetako batzuk taldean jarraitzen dabe gaur egun. Harro nago horrezaz. Koralean nigaz musikea ikasten ebiltzan ikasleak hasi ziran, Zamudio, Derio, Lezama eta Larrabetzukoak ziranak. Ondoren, apurka-apurka hasi ziran inguruko gurasoak seme-alabak koralera agintzen, abesteak eta talde baten partaidea izateak dakarrezan onurek animauta. Beste alde batetik, urte honeetan aldaketak emon dira hainbat arlotan: ahots motak, entseguak, ordutegiak, ahots-teknika, kontzertu-kopurua, giroa...

Abiapuntua 1986ko Gabonak izan ziran.

Urte batzuk ziran Olentzerori abesteko ohiturea galduta egoala, eta herriko umeek halan eskatuta hasi ginan entseguak egiten ohiturea berreskuratzeko. Abenduaren 24an goiz-goizetik urten gendun eta herriko baserrietatik ibili ginan abesten. Hamaiketako bidetik egin genduan eta bazkaltzeko orduan ogitar-teko bana jan genduan eleizako lokalean. Arratsaldean, herritik abestu genduan eta umeek egindako Olentzeroa erre genduan, haren inguruan dantzatu eta abestu genduan... Hurrengo astean, askaria



“Kidea izateko, abestea gustatea eta entseguetara etortea baino ez dogu eskatzen”





*“Gogoz aritzen
bada eta entseguetara
etorten bada,
edonork ikasten
dau ondo abesten”*

*“Kultura musikalean
dabilzan alkarteak
lehentasunez
tratau
behar dira”*

egin genduan batutako diruagaz. Umeak poz pozik egozan eta batzuk abesteko gogoia erakutsi eben. Koruaren ibilbidea halan hasi zan. Entseguak eleizako lokalean egiten genduzan domeka goizetan...

Gaur egun 12 emakume zagoze koralean, baina lehen gizonezkoak be izan dira bertan. Gustura zabilze emakumezkoen taldea izanda, edo gustauko litxakizue korala mistoa izatea?

Esan bezala, aldaketak euki doguz ibilbide luze honetan. Aspalditik emakumezkoak gara koralean kide guztiok eta gure erreperitorioa horretara dago bideratuta. Egia esan, urtero gizonen batek adierazoten dau gaugaz kantetako interesa, baina horretarako abeslari gehiago izan behar ko ginateke, ahots-orekea behar dogulako. Dana dala, era hori ez daukagu itxita, denporeak esango dau.


Kamara koral baten gaineko bariak doguzanean, gehienoi eleiza musikea etorten jaku burura...

Guk atal bitan banatzen dogu ikasturtea. Lehenengoak irailetik abendura arte irauten dau eta lantzen dogun erreperitorioa kontzertu honeetara dago egokituta: San Martin, Gabonak eta Begoñako Aste Korala. Otsailetik ekainera arte, barriz, musika estilo zabala lantzen dogu: folk, jazz, soinu-bandak, gaur egungo musikea... Estilo bat edo bestea aukeratzeko orduan, beti hartzen dogu kontuan non abestuko dogun eta entzuleak nortzuk izango diran.

Maila handiko korala da zuena; atzetik behar zorrotza dago, ezta?

Atsedena **BEZik** gabekoa

Robustaflex eta SWISS confort marketako produktu guztiak, BEZik gabe. Irailaren 15etik abenduaren 15era bitarteko kanpaina.



Orion Biskoelastikoa 150x190
361€ ko AURREZKIA

Bio Latex Koltxoia 90 x 190 edo 200
+ Somier artikulatua
485€ ko AURREZKIA



SUITE DELUX
MARKA ESCLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

Leioa

La Avanzada 80,
(Bilborako norabidea)
944 316 516

Derio

Derioko
Seminarioa,
944 545 147

Eibar

Errebal 19,
943 202 784



www.SUITDELUX.com

Bai. Ahots-teknika lantzea ezinbestekoa da abesbatza batek kalidadea eukiteko; eta entseguetara etortea. Gure artean musika irakasleak dagoz, musika ikasi dabenak eta musikaren gaineko ezagutzarik ez dabenak. Abesbatzaren partaideak izateko eskatzen ditugun baldintza bakarrak honeexek dira: abestea gustatea

eta entseguetara etortea. Musika arloko ezagutza badau, hobe, baina ez da ezinbestekoa. Gogoz aritzen badira eta entseguetara etorten badira, guztiek ikasten dabe ondo abesten.

Zein da Kamara Koralkaren filosofia?

Taldeak guztiok bat egiten dogula eta alkarregaz bizi garala musikaz goza-

ten. Eta hori oinarritzat hartuta, etenbako hobekuntzari ekin.

Filosofia horri eusteko nahikoa baliabiderik dozue?

Gaur egun ez daukagu kexarik, Udaltik jasoten dogun diru-laguntzagaz gure ekintzak bideratzen doguz-eta. Horren haritik gustauko litxakit esatea musikeak pisu handia dauela erakundeek antolatzen dabezan ekintza formaletan eta informaletan; hori barik ez dabe ezer egingen. Horregaitik uste dot kultura musika-lean dabilzan alkarreak zaindu behar dirala, eta lehentasunez tratau.

Proiektu guztiek dakarrezan buru-haustek alde batera itxita, halako talde baten aritzea terapeutikoa be izango da...

Bai. Astero, tarte batez lortzen dogu eguneroko arazoak eta betebeharrak ahaztea. Abesteaz gainera, berba egin eta alkarri laguntzen deusagu. Aitatzekoa da berton lortu dogun lagunarteko giroa.

Eta zuenak ahots solidarioak dira, Dalits proiektuan parte hartzen dozue-eta.

Olentzero Egunean batzen dogun dirua Kumbakonam herrira, Indiara, agintzen dogu Dalits kastakoei laguntza apur bat emoteko. Dalits kastakoei ikutuezinak dira. Ekarpenari esker, bufalo emeak erosi leikiez, eta esnea saldu, janaria erosteko.

Emonaldiak Euskal Herritik kanpo be egiten dozuez eta, ondorioz, hango eta hemengo abesbatzak ezagutzeko erea euki dozue. Alde handirik topau dozue haren artean?

Musikaz betetako urteurrena

Zamudioko Kamara Koralk urrian emon deutse hasiera 25. urteurrena ospatzeko ekitaldiei. Halan, kontzertu bana eskini dabe La Encarnación Bilboko eleizan eta Etxarri Aranatzean. Datozan hilabeteetarako be ekimen sorta zabala antolatu dabe. Azaroaren 3tik 10era bitartean, argazki erakusketea egingo dabe Zamudiotarren eta azaroaren 10ean, iluntzeko 8etan, Kamara Koralk grabatuko CDa aurkeztuko dabe San Martin eleizan. Kontzertua be emongo dabe aurkezpen-ekitaldian. Horrezaz ganera, Zamudioko neskek konbidatu bi eukiko dabez urteurrenaren haritik: Laudioko Musika Banda eta Kherau taldea. Lehenengoak azaroaren 17an arituko dira; eta bigarrenak, azaroaren 24an. Kontzertu biak iluntzeko 8etan izango dira San Martin eleizan. Santa Zezilia azaroaren 25ean ospatuko da eta Kamara Koralk mezea abestuko dau goizeko 11etan. Gabon Kanten Jaialdia hi-

tzordu garrantzitsua da Txorierrin eta urtero bezala hartuko dabe parte. Aurten hiru kontzertu eskiniko dabez: abenduaren 14an, iluntzeko 8etan, Zamudion; abenduaren 16an, eguerdiko 12etan, Loian; eta abenduaren 29an, iluntzeko 8etan, Larra-betzun. Beste alde batetik, Begoñako Aste Koralean arituko dira urtarrilean, eta martxoan udabarriko kontzertuak hasiko dira.

“Zamudion, abenduko kontzertuagaz emongo dogu bukatutzat urteurrena, eta ziur nago balantzea guztiz baikorra izango dana. Egia esan, pozik gagoz 25 urte honeetan izan doguzan jarraitzaileakaz. Familia, herritarak eta ingurukoak euki doguz gure ondoan beti, animoak emoten eta gure ekitaldietan parte hartzen”. Musika protagonista izango da azaroan Zamudion. Ekitaldiak doan eskiniko dira eta herritar eta txorierritar guztientzat egongo dira zabalik.



“Aitatzekoa da berton lortu dogun lagunarteko giroa”

“Beste lurraldeetan kultura musikal handia dabe, eta asko estimaten dabe”



Uf! Luzea da kontaten... baina aitatu behar da etxera itzultzen zaranean konturatzen zarala beste lurraldeetan koruek eta koruko partaideak izateak zelako garrantzia daben. Eta musikeak zelan hurbiltzen gaituen. Beste alde batetik, aitamena egin gurako neuke Salzburgo eta Alemaniako emonaldi-tan topo egin genduzan Txinako eta Finlandiako umeen ganean. Zein ondo abesten eben eta zelako diziplina eben! Ederto ekiten isiltasuna eta aditasuna zer ziran!

Musikea eta kultura zabaltzen 25 urte emon ostean, itxaron daigun Zamudioko Kamara Koralak gitxienez beste horrenbeste urte irautea. Zelan imajinaten dozue etorkizuna?

Guk gure ibilbideari ekingo deusagu, mota guztietako musikea zabaltzen eta disfrutaten. Eta ea 25 urte barru barriro alkartzen garen honelako baten. Amaitzeko, jentea animau gura dogu guregana hurbiltzera, jakin daien musika interpretetea eta talde baten bizitzea zelango bizipena izan daitekean... Ziur gagoz ederto pasauko dabena!

Abesbatzak leku gorenetan dagoz European. Ikastetxe bakotxak, herri bakotxak eta eleiza bakotxak bere abesbatza ofiziala dau, eta han aritzen diranek aukeratze-prozesua gainditu behar dabe. Alemanian eta Txinan, esate baterako, abesbatzetako partaide guztiek musikea ikasten dabe, eta herri bakotxean mota ezberdinetako abesbatzak dagoz. Horrek espe-

zializazioa dakar. Tolosan Abesbatzen Lehiaketean antolatzen da urtero eta agerian geratzen da beste lurraldeetako abesbatzek dabezan garrantzia, lehentasuna eta pribilegioa. Esan daiteke lurralde horreek kultura musikala dabela eta asko estimaten dabela.

Zelako esperientziak euki dozuez kanpoan?



UDA GOIENAKO
OSTERA



RUPER ORDORIKA
HODEIEN AZPIAN



sarreraren salmenta
944 310 310
www.bbk.es
bbk

LEIOA,
KULTUR LEIOA

Azaroaren 24an, zapatua, 21:00etan
Sarrera: 10 €

Antolatzailea: 

Babesleak: 

Laguntzaileak:      

Animaliak jasotzeko zerbitzua

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak kalean galdu diren edo abandonatu diren etxeko animaliak jasotzeko zerbitzua eskaintzen du. Era berean, zerga-ordenantza bat onartu du eta bertan tarifa batzuk ezarri ditu. Animalia-aren jabeak tarifak ordaindu beharko ditu, hura abegi-zentrotik atera nahi badu.

Txakurra oparitu didate, badut legezko betebeharririk?

Bai, batzuk. Txakurrek mikrotxipa eduki behar dute, haien identifikazioa egin ahal izateko. Mikrotxipa albaitariak jarri behar die. Era berean, jabeak Udalaren erroldan sartu behar du animalia. Hala egiteko, hilabeteko epea du txakurra jaio denetik edo hura hartu duenetik.

Zer gerta liteke, txakurrak identifikazio fiskalik ez balu?

Ez zenukeela legea beteko, eta, ondorioz, zigorra ezarri ahal izango lizuketela.

Eta nire txakurra galtzen bada, zer egin dezaket?

Bai zure maskota galtzen bada, bai abandonatuta dagoen txakur bat edo katu bat topatzen baduzu, Udaltzaingoari deitu behar diozu, animaliak jasotzearen ardurara udalek dutelako. Osterantzean, Ertzaintzarekin jar zaitezke harremanetan.

Derion, Larrabetzun, Lezaman, Loion, Sondikan eta Zamudion zerbitzu mankomunatuak eskaintzen da. Mankomunitateak animaliak jaso eta zaintzen dituen enpresa baten bidez ematen du zerbitzua. Beraz, enpresa horretara ere dei dezakezu. Zerbitzua Euskalmushing enpresak ematen du gaur egun.

Doan da galdu diren edo abandonatuta dauden animaliak jasotzeko zerbitzua?

Ez. Izan ere, kontratuaren prezioa urterik urte doa garestitzen. Hori dela-eta, Mankomunitateak zerga-ordenantza bat onartu du, zeinetan tarifa batzuk ezartzen baitira. Interesdunak tarifak ordaindu beharko ditu animalia Euskalmushing enpresatik atera baino lehen.

Zerbitzua soilik galdu diren edo abandonatuta dauden animaliei dago zuzenduta; partikular batek bere maskota kendu nahi edo behar badu, hori ez dago Mankomunitateko zerbitzu barruan



KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Kalean abandonatuta dauden edo galdu diren animaliak jasotzea. Animaliak mikrotxipik ez badu, hura jarri beharko zaio abegi-zentrotik atera baino lehen. Interesdunak zerga-ordenantzan ezarritako tarifa ordaindu beharko du	22 euro
Animalia berriro galtzen bada edo abandonatzen bada	32 euro
Mikrotxipa jartzea	40 euro
Animalia berreskura dezakeela jabeari jakinaraztea	12 euro
Txakurra edo katua adoptatzea	27 euro
Txakur antzutua adoptatzea	60 euro
Katu antzutua adoptatzea	30 euro
Eutanasia (txakurrak eta katuak) eta errausketa	100 euro
Animaliak abegi-zentroan eman duen egun bakoitza	12 euro



Zure **maskota galdu** bada, edo
animalia bat adoptatzea pen-
tsatu baduzu, jar zaitez harremanetan
ondoko enpresarekin



EUSKALMUSHING

Lekunberri auzoa z/b, Lemoa
Tel.: 94 640 00 58 / 663 90 31 21

Enpresa honek urte amaiera arte emango
du zerbitzua

Zamudioztarrak badagoz Sanmartinetarako prest

Besteak beste, boxeoa, umeentzako lehiaketek, kontzertuak, dantzaldia eta auto klasikoen kontzentrazinoa izango dabez aurten

a: Zamudioko Udala

Jaiei azaroaren 9an, barikuan, emongo deutsee hasierak. Arratsaldean, Bertoko taldea eta GazteElai txistu taldea kalejiran urtengo dira, eta iluntzean boxeoa egongo da frontoian. Orain dala gitxi boxeoa eskola sortu da Zamudion eta haren kideek erakustaldia eskiniko dabe. Ekitaldian beste gimnasio bateko boxeolarien kontra arituko dira. Ostean, profesionalak egingo dabe burrukea. Dj Rulik, Luhartz taldeak eta Oihan Vegak musikea jarriko deusie barikuko gauari.

Umeentzako jolasak eta xake lehiaketak antolatu dira zapatu goizerako. Bazkalostean, dantzaldia izango da Hiru bat eta Erdizka laueta taldeen eskutik. Gainera, Zamudioko Kamara Korallak bere 25. urteurrenaren haritik grabatu dauen CDa aurkeztuko dau San Martin eleizan. Gauean, Bad manners, Zarama eta TrikiZio taldeak igongo dira eszenatokira.

San Martin domekan ospatuko dabe zamudioztarrek. Auto klasikoen kontzentrazinoaz gainera, "Zer gara gu, nor gara gu?" lehiaketaren finala izango da goizean. Bost urtetik 12 urtera bitarteko umei zuzendutako ekimena da, eta bertan Euskal Herriaren gaineko galderak erantzun beharko dabez. Kanporaketak ludotekan egiten dabilz. Beste alde batetik, mortzila ipiniko dira erakusgai eskola zaharrean eta eguerdian mortzila-pintxoak eskainiko dira tabernetan. Arratsaldean, umeen-



BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero
Oiz Kalea, 5 T: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobilak: 607 406 613

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben
Lehendakari Leizaola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

Parte hartu
gure jaietan



Jaiak
euskaraz bizi!



Ileapandegia
Ana Belén
estetika - solariuma

Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegi ondoan

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com



Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira



César López Guerra
Tel: 94 452 09 05
Móvil: 605 727 375

Ugaldeguren Ind., 3
26-1. partzela, 2. nabea
48170, ZAMUDIO-Bizkaia



zamudion
euskeraz?
hoba ez!

Espezialitateak:

Pintxoak
Plater konbinatuak
Iberikoak

Lehendakari Agirre plaza, 2
48170 Zamudio
94 456 11 14



Zamudio



tzako puzgarriak egongo dira eta herriko talde bik kontzertua emongo dabe. Jaiei astelehenean esango deuse agur. Egun horretarako, mezea eta karta txapelketea antolatu dabez.

Sustrai ei eutsiz

Jaien aurreko asteburuan, azaroaren 3an eta 4an hain zuzen be, Zamudioko Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokea egingo da 26. aldiz. Oso hitzordu garrantzitsua da Txorierrin zein Bizkaian eta herriraino bisitari asko etorri ohi dira. Gainera, azokea oso erakargarria da, haren barruan Bizkaiko Limusin abelgorrien Txapelketea egiten da-eta.

Azoka-gunean 86 saltoki atonduko dira, eta bertan lehen sektoreko produkturik onenak jarriko dira ikusgai eta salgai: barazkiak, gaztaia, hestebeteak, gozokiak... eta, zelan ez, txakolina. Horrezaz gainera, umeentzako tailerra antolatuko da zapatuan eta parte-hartzaileek euskal okelazko hanburgesa txikiak egiten ikasiko dabe. Hanburgesen dastatzea be egongo da, eta batzen dan dirua gobernuz kanpoko erakunde bati emongo deuse. Zamudioko ganadua eta animalia bitxiak be izango dira azokan. Azkenik, aitatu beharra dago azaroaren 2an, 3an eta 5ean idi-probak egongo dirala.

*Euskal okelazko
hanburgesa txikiak
egingo dira umeei
zuzendutako tailerretan*

Jai-egitaraua

Azaroak 9, barikua

- 18:30: Txupina eta jaien hasiera.
- Kartel Lehiaketaren irabazleari saria emotea.
- Gozokiak.
- 18:45: Kalejirea, Bertoko taldegaz eta Gazte Elai txistu taldeagaz.
- 20:00: Boxeo, frontoian.
- 23:00: Kontzertuak: Dj Ruli + Lu-hartz + Oihan Vega.

Azaroak 10, zapatua

- 11:00: Umeentzako jolasak, frontoian.
- Xake lehiaketea, frontoian.
- 12:30: Kalejirea.
- 14:00: Herri bazkaria, frontoian.
- 17:30: Dantzaldia, frontoian. Hiru bat eta Erdizka laueta taldeakaz.
- 20:00: Zamudioko Kamara Korala-ren CDa aurkeztea, San Martin eleizan.
- 23:00: Kontzertuak: Bad manners + Zarama + Trikiio.

Azaroak 11, domeka. San Martin

- 11:00: Mezea.
- Autoak Kotxozulo aparkalekutik aterako dira.

- 12:30: "Zer gara gu, nor gara gu?" lehiaketaren finala, frontoian.

- Kalejirea.

- 13:00: Auto klasikoaren kontzentrazioa, eskola zaharrean.

- Mortzila erakusketea, eskola zaharrean.

- Pintxo-poteoa.

- 16:00: Umeentzako puzgarriak, frontoian.

- 19:00: Kontzertuak: 6mo eta Ke4 Zamudioko taldeak.

Azaroak 12, astelehena

- 12:00: Mezea.

- 16:00: Karta txapelketea, Adintsuen etxean.





luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia



Fle-apaindegia
M^a Antonia Llodio

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Magalarte Txakolina

ARITXABALETTA IZENA ETA BOTILAGAITZA

75 cl.
10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen



ASADOR ARAMENDI

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO



MAYORISTAS INFORMATICOS

**ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA**

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>



**hotela
jattetxea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Susterrak Taberna

Morfzilak
barikuan eta zaparjuan



Zamarripa Enparantza, 2 944069027 48170 Zamudio

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra



Arbolantza kalea, 9 - 1. izk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 695 70 33 12



**Caserio
Lubarrieta**

Jattetxea

Arteaga auzoa, 17 - 48170 ZAMUDIO
944 522 725

ZAMUDIOKO BATZOKIA
Txorierriko et., 3
48170 Zamudio - Bizkaia
94 452 27 25




**ESTILISTA
EVA ARDINES**

Asteartea - Ostirala: 9etatik-19etara
Larunbata: 9etatik-14etara

Urbe Plaza, 1 - Behea 48170 Zamudio
Telefona: 94 452 94 19 (Aurreko txanda)

Abendañoena (Abadiñone)

t/a: Sabin Arana

Larrabetzukoek, iskanbilak tartean, 1488. urtean erabaki zuten basoa banatzea edo hura pribatizatzea. Zehaztasunez egindako agirian lehenengo aldiz aipatzen da Sarrikolea deritzogun burdinola, hala ere, hura Hiriarekin batera egin zen. Inguruari Sarria deritzoten, eta agiri horretan ere aipatzen dira lehenengo aldiz Olea eta Sarrikolea leinuak, Burdinolako ugazabak hain zuzen ere. Garai har-



tan Larrabetzuko nagusia Zugasti leinukoa zen eta, noski, horrek ere bazuen burdinolaren zati bat. Hala, burdinolatik gertu dorre berria eraiki zuen XV. mendean.

Marrazkiaren beheko aldean ipini dugun etxea 1825. urtean eraiki zen arren, haren ondoan oraindik nabari den plataformatxoa dago eta han etxe zaharra izan zen. Sarrikoleatar leinua adar nagusi bitan banatu zen. Leinu horren adar bati buruz aspaldian hitz egin genuen txoko hone-

tan; beraz, beste adarraz arituko gara orain. Azken honek jatorrizko etxean iraun zuen.

Abendañoena edo Abadiñone moduan ezagutzen duguna, jatorrizko Sarrikolea leinu-etxea da. Mari Joanes Sarrikolea eta Loroñotar, Pedro Loroño Sarrikolea eta Mari Ibanes Gerraren alaba, Galdakako Juan Abendaño eta Zabalatarrekin ezkondu zen 1634. urtean. Galdakaoztarra Santiago Abendaño eta Zabala abadeak gaztea zela eduki zuen semea zen. Bere hilburukoan agertzen den moduan, aba-

Balizko irudi honetan, Sarrikolea eta Olea leinu-etxeak ipini ditugu, Sarrikolea izeneko burdinola eta haren ondoan, arragoa. Irudian agertzen ez badira ere, inguruari izena eman zion Sarria leinu-etxea eta gaur egun desagertuta dagoen Zugastiren dorretxea ere badira aipatzekoak. Aipatutako leinu-etxeak XVIII. mendera arte kudeatu zuten burdinola, bai zuzenean ofizioz, bai hornitzaile bezala. Irudian ageri den moduan, burdinolaz gain errota ere bazegoen. Goialdean, eskuman, Oleatarren etxea dago; eta ezkerrean, Sarrikoleatarrena.



deak zenbait emakumerekin eduki zituen sexu-harremanak. Gainera, oso ospetsua eta boteretsua zen, eta Abadaño leinu ezaguneko izateaz gainera, elizan zituen karguengatik ere bazen nahiko ezaguna. Horrela bada, etxea Abadañoena izenarekin ezaqutzen duqu gaur.


Etxea 1825. urtean berreraiki zen, une horretan Juan Manuel Zugazagatar haren ugazaba zela. Jatorrizko leinu-etxea etxebizitza bakarrekoa bazen ere, etxebizitza bi egin ziren berreraikitze hartan. Eraikuntza dotorea zen eta, hasiera batean, balakoa ere bazuen, lehenengo zein bigarren solairuan, alderik alde. Arku ederra zuen, garai hartan Larrabetzun, beste hainbat herritan bezala, modan jarri zena.

Etxearen tamaina kontuan hartzen badugu, leihoak txikiak ziren. Baina pentzatu behar dugu horiek han bizi zirenak hotzetik zein berotik babesten zituztela, zenbat eta zulo gutxiago egon, tenperatura gero eta egokiagoa dela. Zalantza barik, atariak du ezaugarri dotoreenena. Hala, oraindik ere arkuaren inguruan ikusgai dauden margo aztarnek, garaiko estilora hurbiltzeko nahian edo, Larrabetzuko

Mende bi igaro ondoren itxura galdu badu ere, irudi honetan ikus dezakegu nolakoak ziren garai hartako arkitektoen joerak eta ugazaben kapritxoak. Ematen du arkuaren traza eraikina edertzeko elementua zela, nahiz eta arkuak berez etxearen handikia eta sendotasuna agerian uzten zuten. Beste argazkian harginaren sinadura ikus dezakegu, arkuak hasten den harri landu berezian ipini zuena. Bere lanaz harro zeogen, beraz.



Abendañoena



Esan bezala, etxea Juan Manuel Zugazagatarrak eraiki zuen, hark hogeita hamaika urte zituela.

beste zenbait etxetan ere egin ziren irudi geometrikoz jantzi zituzten etxaurreak. Bestetik, etxea maizterren beharrianetarako pentsatuta zegoenez, aurreko aldean eta ataritik sartuta, kortara eta sukaldera ematen duen korridorea ipini zen. Sukaldetik aurreko logelara sartzen zen, eta atzealdean korta edo ukuilua zegoen. Goiko solairuan logela bi, areto nagusia eta balkoia zeuden etxebizitza bakoitzean. Solairu honen atzealdean lastategia atondu zen; eta ganbaran, uzta-biltokia. Etxe txikiagoek ere antolaketa berdina zuten garai hartan.

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbolinean jokatu, etorri zaitzez Trippyra, Deriora

Behoko Kalea Bajo
DERIO



Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
 48196 LEZAMA
 ☎ 94 455 60 16
 e-mail: lezama@fcae.org
 Bazkideak: 144

*Pentsu
 naturalak*



Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin

 **POLITEKNIKA IKASTEGIA**
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Luride Hezletza eta Bigarren Ikasketuntzako Ikastetxea

Intzagaia Ibaia, Kalea, 1
48160 - DEIRO

Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61

info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurilaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

BATXILERGOA

• Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioko Teknikaria

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- * Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Teknikaria
- * Produktzioa Programatzeko Teknikaria
- * Automatizazioa eta Informatikako Sistemetako Teknikaria
- * Salmenten eta Merkataritza esparruen Kudeaketako Teknikaria
- * Inquirumen Hezkuntza eta Kontrolako Teknikaria

**Krisialdi honetan, gizabanakoa-
rengan ipini duzu arreta.**

Pertsonok badugu gaitasuna geure erabakiak hartzeko, pentsatzeko, ekin-
tzak aurrera eramateko, beste batzuekin
elkartzeko... Baina geldirik gaude krisia-
ren aurrean. Liburua tresna bat da, hain-
bat esparruri buruz hausnartzeko, ezta-
baidatzeko, ondorioak ateratzeko eta
konponbideak aurkitzeko. Krisia gainditu
nahi badugu, lehenik geure pentsamol-
dea aldatu behar dugu. Izan ere, estatuek
ez ezik gure pentsamoldeak ere baditu
zorrak.

Zergatik?

Helburu edo amets bat dugunean,
estatuek eskaintzen dizkiguten baliabi-
deak hartzen ditugulako, beste lagun
batzuekin elkartu eta gaiari heltzeko
dauden beste aukerak aztertu beharre-
an.

Adibidez?

Herri guztietan, edo gehienetan, ba-
dituzte hutsik dauden etxebizitza zaha-
rrak. Kontuan izanik zein altu dagoen
langabezia-tasa, eta askok ezin dutela
etxebizitzarik eskuratu, gai hau eta bera-
ren konponbideak aztertu ahal izango
lirateke. Esate baterako, udalek etxebizi-
tzak birgaitzeko enpresak sortu ahal
izango lituzkete eta, bide batez, lana
eskaini. Gainera, birgaitze lanetan dabil-
tzanei abantailak eskaini ahal izango
litzaizkieke, etxebizitza erosteko. Eta mai-
legurik eskatu behar izanez gero, banke-
txe finantzarioa alboratuko lukeen beste
eredu baten alde egin liteke. Era berean,
trukea oso tresna ekonomiko egokia da
eta hura erabiliko ahal izango genuke.
Baina ez dugu horrelakorik egiten gure
buruaz ez dagoelako halako gauzarik.
Krisia gainditzeko, geure pentsamoldeak
gainditu behar ditugu, eta, hain zuzen
ere, horretan datza liburua.

**Krisi ekonomikoa ez ezik beste
krisi mota batzuk ere aztertu dituzu li-
buruan: soziala, politikoa, ekologikoa,
militarra...**


Azken batean, sistema bera dago kri-
sian. Antzinako Erregimenaren ostean,
iraultza burgesa etorri zen; eta gero,
iraultza sozialista. Baina, denborak aurre-
ra egin ahala, ikusi dugu ez direla garatu
ez bataren printzipioak, ez bestearen
printzipioak. Aitzitik, pertsonak menpe-
ratzea helburu izan duten sistemak gara-
tu dira. Eta orain, ekonomia-arloan jar-



“Gure pentsamoldeak ere baditu zorrak”

JABIER LERTXUNDI | Itzarri enpresako aholkulari seniorra

Jabier Lertxundik *Ideia batzuk krisi madarikatu hau gainditzeko* liburua argitaratu berri du. Liburu horretan, oraingo sistema-
ren krisiari buruz hausnar-
tu du, sistema hori osa-
tzen duten hainbat arlo
aztertuz. Krisia gainditze-
ko gakoak ere eman ditu
liburuan. Liburua
www.itzarrikas.net web-
gunearen bidez eskura
daiteke.



*"Krisia gainditzeko,
beldurra galdu
behar dugu
lehenengo
eta behin"*

tzen dugu arreta, beste arloetan gertatzen dena ezkutatzeko. Arlo horiek guztiek elkarren arteko lotura dute eta, bata konpontzeko, besteak ere konpondu behar dira.

Herritarrok hasi dira beste sistema bat aldarrikatzen...

Liburuan horri buruz hitz egiten dut, gaur egungo sistema menperatzailearen hipokrisiari buruz. Gure gobernuek halako mugimenduak babesten dituzte Libia edo Siria bezalako herrietan, baina, hemen sortzen direnean, egurra ematen diete. Eta jokabide horren arrazoia ekonomikoa da. Herritarrok protestatu eta aldarrikatu egin behar dugu, ezin diogulako sistemari geure burua saldu. Hala eginez gero, okerrago egongo gara. Bidean kontraesan eta tirabira asko egongo dira, baina nik uste dut herri mugimenduek pixkanaka-pixkanaka lortuko dutela gauzak aldatzea.

Krisitik ateratzeko gakoak gure esku daudela diozu, zeintzuk dira gako horiek eta zelan ezarri behar ditugu?

Lehenengo eta behin beldurra galdu behar dugu, hark mugatu egiten gaituelako. Hala, arrakastatsuak izan daitezkeen aukerak edo egin nahiko genituzkeen gauzak alboratzen ditugu, etor litezkeen ondorio txarrei beldur diegulako. Behin beldurra galduz gero, harremanak eraiki behar ditugu; aurreiritziak gainditu, gauzak komunean egiteko.

Aukerak geure inguruan topatu behar ditugu, beraz.

Bai, ni herrietatik, auzoetatik... hasiko nintzateke. Inguruan ditugun baliabideak aztertu eta haiek erabiliko nituzke, negozioa multinazional bati eman beharrean. Adibidez, energia zergatik ekarri kanpotik, gu geure energia ekoizteko gauza bagara? Guk geurea egin behar dugu.

Egilea

Jabier Lertxundi Bilbon jaio zen 1955. urtean. Soziologian lizentziatu zen UPV-EHUn, eta Ekonomia Zientzietan doktoratu zen unibertsitate berean. Gaur egun, proiektuen koordinatzailea da Itzarri Consulting enpresan. Profesional bezala, zenbait enpresaren zuzendaritzan egin du lan, eta partaidetza-sistema ekonomikoen defendatzaile sutsua da. Aholkulari bezala, ezaguna da erakundeetan pertsonen lidergoa sustatzeko egin dituen ekarpen metodologikoengatik, talde-lana bultzatzeagatik eta pertsonen garapen pertsonal eta profesional sistematiakoak sustatzeagatik. Gai sozioekonomikoen inguruko liburuak idatzi ditu; esate baterako, *La tecnocracia en MCC* (Basandere, 2002), eta *La autoalternativa vasca* (Basandere, 2008). Era berean, artikulatuak idatzi ditu enpresa zein unibertsitate mundurako, eta seminarioetan, konferentzietan eta kongresuetan hartu du parte.

Nire Autoocasion

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonos-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

GOXO-GOXO LOHITZUN

Siratsaldak zehelk
Ogile apurketo
Pistalek enkargatu

Garaiozta, 77c
48196 LEZAMA
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea

Emiliano

Menu bereziak antolatzen • Egurako menua eta karta
Etxera eramateko platerak • Jaunartzeak eta ebentzak
Rozkila antolatzen • Jantoki zaharrik

R.ª Garaiozta, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA • Bizkaia

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Baskatik Txakolina
Tradizioa eta garapena

Baskatik Txakolina

Geltiozta auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO ORELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonos 94 454 07 98 Mungia etorbidea, 25
Fax 94 454 14 18 48160 DERIO

t i k a k

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogile
ondaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Aste berbamikologikoa

Ikasturte berriari heldu genion bezala helduko diogu azaroari berbalagunok: gogoz. Hemendik aurrera, ekintzak Txorierriko euskara elkarteekin batera antolatzen saiatuko gara, eta Lagatzu Zamudioko euskara elkartearen eskutik eman go diogu hasiera lankidetzara honi. Beraz, perretxiko sasoian gaudela kontuan izanik, Aste Berbamikologikoa antolatu dugu datorren hilabeterako.

Roberto Fernandez mikologoak hitzaldi bat egingo du azaroaren 8an, arratsaldeko 7etan, Zamudiotorren. Eta azaroaren 17an, Sarria herrira joango gara perretxikotan. Goiz jaiki beharko dugu egun horretan, goizeko 8etan gelditu garelako Lagatzu elkartearen egoitzan. Txangoan, Juanan Diez izango dugu gidari. Juanan aditua da perretxiko eta onddoetan, eta berak esango digu zein har dezakegun eta zein ez.

*"Hitzaldi bat,
irteera bat eta
argazki lehiaketa
bat antolatu
ditugu azarorako"*

Era berean, Argazki Lehiaketa antolatu dugu, eta gaiak perretxikoekin izango du lotura, noski. Maila bi izango dira: hamalau urte arteko umeak eta adin horretatik gorakoak. Maila bakoitzean, sari bat emango da. Argazkiak azaroaren 20a arte bidali ahal izango dira txorierri.berbalaguna@gmail.com helbidera. Argazkiek bereizmen handikoak izan behar dute, jpg formatukoak. Parte-hartzaileek mezuan zehaztu beharko dute zeintzuk diren beren izen-abizenak, telefono zenbakia, argazkia ateratu duten lekua eta data, maila eta e-maila. Nahi izanez gero, argazkiaren gaineko azalpen txikia ere idatz dezakete. Epaimahaia IZAE Zamudioko argazki taldeko kideek osatua egongo da, eta argazkirik onenak Fernan tabernan ipiniko dira ikusgai azaroaren 26tik abenduaren 2ra arte.

Burua ezagutzaz beteta daukagu

Ez dakigu geldirik egoten, eta astero-ko talde eta ekintzez gainera, oso ekitaldi interesgarri bi izan genituen urrian. Aukera ezin hobeak, geure txokoak ezagutzeko eta arteari buruz zerbait ikasteko. Sabin Aranek ibilbide ederra prestatu zigun, Larrabetzuko errekarari jarraituz egiteko. Bidetik zenbait baserri eta errota bisitatzeko aukera eduki genuen, eta haien historia ere ezagutu genuen. Errota



INFORMAZIOA:
Telefonoa:
 635 75 35 95
E-mail:
 txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
 www.aikor.com/txokoa/berbalagun

bat martxan jarri zuten, gainera, ikus genezan nolakoa den haren funtzionamendua.

Beste alde batetik, hitzordua eduki genuen Boteroaren bolumenarekin. Artistak 80 urte bete ditu aurren, eta urteurrenaren haritik erakusketa bat antolatu da Bilboko Arte Ederren Museoa. Berbalagunok ez dugu hura bisitatzeko aukera galdu. Oso ekintza interesgarria izan zen eta arreta handiz jarraitu genien museoko gidariaren azalpenei. Artistari buruz zerbait gehiago ikasita eta bere lanak liluraturik irten ginen handik.



Ilusioaren garaia

2050. urteko euskara, super ona

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

"Herri ta herrixka, baserri, kale, aldutuz doaz urterik urte;" dino orain 45 urte Lourdes Iriondok abesturiko kantak. Eta guk dinogu, euskal herriak aldatzen diran moduan dira aldatzen hizkuntzak; euskara bere bai.

Kontzientzia itzarrik 50 urte baino gehiagotan bizi garanok, eboluzino handia ezagutu dogu hizkeran. Aldaketa hori norantz joango da gaurtik aurrera?

Badakigu, dana dala, gure herrietan edozein tokitako euskaldun zaharrak bizi dirana, euskaldun barriekin batera. Halanda guzti, Txorierriko euskaldunek Txorierriko erara egingo dabe berba eta Ondarroakoek Ondarroako erara.

Arduratzan nauena euskararenganako atxikimendua da, nork berea ez estimatzea. AIKOR!en, 118. zenbakian topau dot: "Azokak"; "Larrabetzu"; "Bertako produktuak". Durangoko *Anboton*, 471. zenbakian, barriz, Jon adiskidearen: "Aurrera dihoa".

Bizkaierakook bertoko eta bertako bereiztu izan ditugu. Txorierriko txakolin-gileek "Bertoko txakolina" darabile, ze bertako gure belarrietan hango da, ez hemengo. Durangon, oster, "doa" esaten da, ez "dihoa". Bide horretatik joko ete dau euskarak, lekuan lekukoa deserrotuz; nork berea bazter itzirik?



Nik neurez, gurago norberanari atxikimendua gordez jokatzea, dakigunetik ez dakigunera; ze euskarak burua ez eze bihotza be badauka eta bihotzaren radiografia maitasunak dagi. Urliak, amaren euskara, etxekoa, auzokoa maiteko dau;

sandiak, Arestiren berbakera uritar indarrezkoa; berendiak, Axularren goien graduko prosa hegoduna edo Leteren "Xalbadorren heriotzean". Azken baten, kontua maitemintzea da, 2050. urteko edozein euskara izango da-eta super ona.

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriari etorbidea, 8 - Lortze / Arteaga enakina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

MODA INFANTIL

Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESETERAK

ZERRITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARITVALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONO/FAX: 94 455 64 87

AM
FORMACIÓN Y TRADUCCIONES

www.am-formacion.com

Garaioitza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 89

Erremanteri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

INGURU ESKOLA
AMASA GUSTUK
AZTERKETA OFIZIALAK
ENTZUKO PRESTAKUNTZA
AMATU ONETAKOIA
PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
ESKOLAZ KANPOKO KLASAK
ITZULPEN ZERBITZUA

Jata-Ondo alkartea

20 urte landa garatzen

Mendi-nekazaritzako alkarteak 1991n erein eban hazia, eta handik erne zan Jata-Ondo alkartea. Geroago, jarduerazabaldu da eta gaur egun orokorrean landa-garapena dau alkarteak helburutzat. Jata-Ondo erakunde zabala da, bere barruan toki-erakunde publikoak eta landa-eremuagaz eta turismoagaz zerikusia daben hainbat alkarte batzen ditua. Landa-garapena helburu harturik, 23 udalek eta beste erakunde batzuek, publikoek zein pribaduek, jarduten dabe beharrean alkarteagaz eta baserritarren alkarteakaz batera. Jata-Ondoren jarduneremua Uribe eskualdea da eta Txorierrir eskualde horren barruan dago kokatuta.

Eusko Legebiltzarrak Landa Garapenerako Legea onartu eban 1998an. Eskualdean lege horrek ezarritako helburuak bete daitezcan ahalegintzen da Jata-Ondo. "Landa-garapena zabaltzeko dirulaguntzak banatu ohi dira. Guk dirulaguntzen barri emoten dogu eta udalei, alkarteei eta landa-eremuan jarduerak ekonomikoak sortzen daben egitasmoiei laguntzen deutsegu dirulaguntzak eskuratzeko egin behar diran izapideak egiten. Batzuetan, proiektuak garatu behar izaten ditue dirulaguntzak lortzeko, eta horretan be eskaintzen deutsegu aholku-

laritzea", esan dau Jokin Etxebarria Jata-Ondo alkartearen arduradunak. Azaldu deuskun moduan, hainbat laguntza zuzentzen dira landa-eremura, baina askotan interesdunek ez dabe horren barririk eukiten. Horregaitik, ezinbestekotzat jotzen dau sektore honetan dabilzan lagunak alkartera hurbiltzea.

Diru-laguntzez gainera, alkarteak beste esparru batzuk be jorratzen ditu. Hondakinen kudeaketea da eureetako bat. Ustiatogietan plastikoa, botiken ontziak eta horrelako hondakin asko sortzen dira eta Jata-Ondok halakoak batzeko zerbitzua emoten dau. "Txorierrin, esate baterako, Lezamako kooperatibegaz egiten dogu behar, zerbitzua bultzatzeko".

Landa-eremuan teknologia barriak aplikatzea da alkartearen beste helburu bat. Izan be, batzuetan oso estaldura gitxi egoten da landa-eremuetan eta, ganera, han bizi diranek nekez erabilten ditue horrelako teknologiak. Alkarteak estaldurari zein erabilereari emon gura deutse bultzadea, teknologia barriak oso onuragarriak izan leitekezalako.

Jata-Ondo alkarteak turismoa be sustatzen dau Uribe eskualdean. Horretarako, eragile publiko zein pribaduakaz (en-

Helbidea:

Gamiz Bidea, 30
48100 Mungia
(Bizkaia)

Telefonoa:

94 615 66 12

Webguneak:

www.jataondo.org
www.uribe.eu



presak, ostatuak, tabernak, jatetxeak...) eukiten ditu hartu-emonak, eskualdearen lehiakortasuna eta eskualdeko produktu eta zerbitzuen kalidadea hobetzeko. Batez be turismo enogastronomikoa bultzatu gura dabe eta horregaitik txakolingintzan eta gastronomian ipini dabe arreta berezia.

Jata-Ondok Latxaga Errota enpresamintegia jarri dau martxan Gatican, eskualdean sortzen diran enpresa barriei gune bateratu egoki bat eta beharrezko zerbitzuak eskaintzeko. Erabiltzaileek bulego bat hartu leikie bertan babespeko alokairuan, eta eraikinak dituan gune komunak be erabili leikiez. Era berean, zerbitzu profesional osagarriak eskaintzen dira doan: prestakuntza arloko ekimenak, batzarrak, erakusketak eta lantailerrak, beste batzuen artean.

Txorierrin

Lehen aitatu danez, Jata-Ondo alkarteak Uribe eskualdean egiten dau behar: Berangotik Meñakara eta Lemoiztik Larrabetzura. Eskualdean politika orokorrak bultzatu arren, tokian tokiko jarduerak be egiten ditue. Halan, Txorierrin nekazaritza-azokak antolatzen laguntzen dabe eta hartu-emonetan dagoz Gurgipide Larrabetzuko alkarteagaz. Horrezaz gainera, laguntasuna emon dabe Larrabetzun eta Zamudion Erdi Aroko ibilpideak prestatuko. "Dinamizetea da gure beharra, baina, egia esan, oso ekintzaileak zarie Txorierrin, eta behar egiteko aukera asko sortzen dira..."



Etxeko sukaldaritza



Tomate beteak

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 4 tomate handi
- 200 g okela txikitua
- Kinpula txiki bat
- Piper berde txiki bat
- Berakatz-atal bi
- Kalabazin zati bat (100 g ingurukoa)
- Orioa eta gatz

Prestateko erea:

Tomateak koilaratxo bat erabilita hutsituko doguz. Barazkiak garbitu eta txikituko doguz. Zartagin batera orio-zurrus-tea bota, eta ostean barazkiak botako doguz ordena honetan: kinpulea, beraka-

tzak, piper berdea, kalabazina eta hutsitutako tomateak. Barazkiak eginda dagozanean, okela gehitu eta zartaginari es-talgia ipiniko deusagu, egin daiten. To-mateak beteko doguz eta laban sartuko doguz 180 graduko tenperaturan. Han 15-20 minutuan izango doguz.

Tomateak bexamel eta gaztai saltseagaz serbidu daitezke. Osagai honeek beharko doguz: koilarakada bat gurin, koilarakada bat urun, litro erdi esne eta sei gaztai-xerra. Gurina zartagin batean urtuko dogu. Uruna gehitu eta eragin egingo dogu. Ondoren, esnea eta gaztaia gehituko doguz eta su eztitan bost minutu inguru eukiko dogu egosten, saltsea ondo egin arte.

Txokolatezko brownieak

Gastronomía Vascatik moldatua

Osagarriak (4 lagunentzat):

- 250 g gurin
- 250 g kobertura baltz
- 350 g azukre
- 4 arrautza
- 220 g urin arina
- Bainila, unitate bat
- 1 kg gatz fin
- 120 g intxaur

Prestateko erea:

Gurina eta txokolatezko kobertura batera urtu, oso ondo nahastuz. Azukrea gehitu, irabia-keta eta nahasketa egokiaren bi-tartez. Arrautzak banan-banan gehitu nahasketa egokia eginez, pasta homogenea lortu arte. Urina, bainila eta gatz gehitu, nahasketa homogenea lortu arte ere. Intxaurrek txikitu eta pasta-rea gehitu.

Moldea pastagaz bete eta laban 200°-tara egosi. Ez da gomendagarria laban denpora gehiegi emotea, masa krematsua lortu gura dogulako. Kontutan izan behar dogu behin labetik aterako doguzanean, masa gogortuko dala brownien kapa fine-gia bada.

Garmendia ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietza

Osasun-zentroa & Hortz-esetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ORITU-ORNTZIALESTENAK
DENTURAK ZEPHILIZAK

Dr. Amara kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Uribetxe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragoiti ind. P-7
48170 Zamudio (Bizkaia)

Restaurante

JANA JAKETXEN

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, baltzoak eta ezkontzak

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA

Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Berba zaharrak

Ezetz asmatu antzinako berbek zer esan gura daben.

1. Pekorotza
2. Sano ondo
3. Ume trabesa
4. Gozamenen bizi
5. Leie
6. Kotxoa
7. Sorkie
8. Txibiskeriak

- A) Bihurria
- B) Arra, zizarea
- C) Goizeko izotza, dana zuriz agertzen dananean
- D) Ezkondu ostean gurasoak bizi, nora joan ez edukitzeagaitik
- E) Gorotza
- F) Oso ondo
- G) Gozokiak, golosinak
- H) Buruan jartzen dan zapia, otzarea edo ontzia eroateko

ERANTZUNAK: 1E, 2F, 3A, 4D, 5C, 6B, 7H, 8G

Sudokua

9			8		5	7		
				2				8
			7		1			
					4	3	7	
2	7			9				5
							1	2
					7	5	4	
	4		1			2	3	
		9	4					

7	6	8	2	3	4	9	5	1
7	4	8	1	5	6	2	3	9
3	2	6	9	8	7	5	4	1
6	3	4	5	7	8	9	1	2
2	7	1	6	9	3	4	8	5
8	9	5	2	1	4	3	7	6
5	8	2	7	4	1	6	9	3
4	6	7	3	2	9	1	5	8
9	1	3	8	6	5	7	2	4

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Azokak

Sondika

- > Eskulangintza, Nekazaritza eta Abeltzaintza. Azaroaren 11n, 10:00etan.

Erakusketak

Sondika

- > Sondika-Goiri argazki taldearen lanak. Azaroaren 2tik 15era. Altzora euskara elkartearen lanak. Azaroaren 16tik 29ra.

Derio

- > "Nunca más". Azaroaren 29ra arte, Kultur Birikan.
- > Perretxikoak. Azaroaren 4an, 10:00etan, Sollube kalean. Untza mendi taldeak antolatua.
- > Jose Almagiaren olio-pinturak. Azaroaren 5etik 30era, Kultur Birikan.
- > "HIESaren kartelak". Azaroaren 26tik abenduaren 7ra, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Sondika

- > Zahartze arrakastatsua. Azaroaren 6an, 18:30ean, Jubilatuen etxean.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan. Harkaitz Zubiriren Etxekalte liburua. Azaroaren 15ean, 20:00etan, Anguleri kultur etxean. Arrekikili euskara elkarteak antolatua.
- > Hezkidetzatza. Azaroaren 21ean, 18:00etan, eskolako liburutegian. Txinpasmendi guraso elkarteak eta berdintasun batzordeak antolatua.

Ikastaroak

Lezama

- > Luzatze ariketak. Azaroaren 24an, 10:00etan, Uribarri topalekuan. Zorribike taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Nola kontrolatu zure datuak gizarte-sareetan, eta ortu ekologikoa. Izena ematea: azaroaren 12tik 16ra arte, Anguleri kultur etxean.
- > Ogia egiten ikasi. Azaroaren 14an, 17:00etan, Eleixaldeko txokoan.
- > Autodefentsa. Azaroaren 17an eta 18an, eskolako gimnasioan. Izena ematea: azaroaren 9ra arte, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Sondika

- > Umeentzako ipuin kontalaria. Azaroaren 9an, 18:00etan, liburutegian.

Derio

- > *So in love* musikala. Azaroaren 30ean, 20:30ean, Gurea Aretoan. Sarrerak: 6 euro; asteburuan salgai.
- > Santa Zezilia: Ipar-Alde abesbatzaren emanaldia. Azaroaren 24an, 19:00etan, San Isidro elizan.

Irteerak

Sondika

- > Burbona. Azaroaren 18an. Izena ematea: azaroaren 15era arte, liburutegian.

Derio

- > Perretxikotara. Azaroaren 3an, 08:00etan, udaletxearen aurrean. Untza mendi taldeak antolatua.
- > Tokiko agenda 21 bidea. Azaroak 11n, 11:00etan, Kultur Birikatik. DerioKO-munikazioak antolatua.

Zamudio

- > Urbasa eta Opakua. Azaroaren 25ean, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Belatxikieta. Azaroaren 27an, 09:00etan, Uribarri topalekuan. Zorribike taldeak antolatua.
- > Los jembres. Gailur mendi taldeak antolatua.

Jaiak

Sondika

- > San Martin. Azaroaren 10ean, 12:30ean, San Martin ermitan.

Lehiaketak

Txorierrri

- > Gabonetako postalak.
Sondika: Lanak aurkezteko epea: abenduaren 7ra arte, udaletxean. www.sondika.org.
Larrabetzu: Lanak aurkezteko epea: azaroaren 19tik 23ra.

Zamudio

- > Slaloma. Azaroaren 24an, 11:00etan.



Gorbeia kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Teknologi Parkeko Elkartegia: 801 E - 107 B
51 43 79 21 4860 Derio, Bizkaia
653 06 386 estudio@maklaarkitektura.com
620 080 14 www.maklaarkitektura.com



Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808



Saketeleko telefonoa: 667 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarte kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
T. + faxa: 94 452 25 87
patxiscoop@patxi.coop

**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...maila handiko teknologiarekin.

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu ikerketa alorrean hegazkin-motor eraginkorrak eta atmosferara CO² gutxiago isuriko dutenak diseinatu eta egiteko, teknologia horren garapenean berrikuntzak eginez, eta etengabe hobetzeko talde-lana bultzatuz. Eta horregatik, Ingurumen alorreko Baimen Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.

Ingurumena errespetatzeari dagokionez aitzindari izateko jarri genuen helburua betetzen ari gara.



www.itp.es



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

BARDINEAN EUSKERAZ



Lan egiteko euskaldunak behar dituzu?

- Aisialdirako begiraleak
- Klase partikularren irakasleak
- Kirol begiraleak
- Nagusien zaintzaileak
- Umeen zaintzaileak
- Dendariak
- Tabernariak



Lan bila
zabiltza?

Zatoz
Mankomunitatera!



¿Necesitas estos servicios en euskera?

- Monitores/as de tiempo libre
- Profesores/as de clases particulares
- Monitores/as de deporte
- Cuidadores/as de personas mayores
- Cuidadores/as de niños/as
- Dependientes/as para comercios
- Camareros/as



¡Ven a la
Mancomunidad!